


**ECO
LOIOLA**



**ECO
LOIOLA**



HEZKUNTZA-PROPOSAMENAK "AMA LURRAREN EGUNA"

Mugen amildegian oinez ibiltzea

ADINA: DBHko 1. zikloa.

BEHARREZKO MATERIALA: [Mugen amildegian oinez ibiltzea](#) bideoa (youtuben dago).


DESKRIBAPENA: 2 minutu eta erdiko bideo honetan klima aldaketak, besteak beste, urtebetetze-festa bat antolatzea bezain gauza sinpleetan 30 urte barru izan dezakeen eragina azaltzen da. Eguneroko bizimoduaren adibide zehatzetan oinarrituta, ikasgelan hausnarketa egin dezakegu gure bizitzako erritmoak eragiten duen baliabide eta energia kontsumoaz. Esteka honetan [Ekologistak Martxan erakundearen txosten osoa](#) deskarga dezakezu.

Transition 2.0

ADINA: DBHko 2. zikloa.

BEHARREZKO MATERIALA: [Transition 2.0](#) bideoa (youtuben dago)

DESKRIBAPENA: 9 minutuko bideo honetan, argitzen da zer dela-eta erabiltzen dugun behin eta berriro "energia garbiena" definizioa energia berriztagarrien sinonimo gisa, eta adierazi nahi da badirela inpakturik eta gatazkarik eragiten ez duten moduak energia sortzeko. Hala ere, eguzki-energiak, haize-energiak eta energia hidraulikoak ez dute zertan garbiak izan; ordea, berriztagarriak dira, eta hala deitzen zaie ez direlako agortzen. Bideoa abiapuntu izan daiteke ondoren energia-motei buruz dugun informazioaz eta haien erabileraz eztabaidatzeko. [Esteka](#) honetan hezkuntza-proposamen gehiago dituzu bideoa ikusi ondoren egiteko.



**ECO
LOIOLA**



GHI 07: energia eskuragarria eta ez kutsatzailea

ADINA: DBHko 2. zikloa.

BEHARREZKO MATERIALA: “[GIH 07: energia eskuragarri eta ez kutsatzailea](#)” unitate didaktikoa.

DESKRIBAPENA: unitate didaktiko honen bidez, pentsatzeko azterketa bat proposatzen dugu, energia berriztagarriari buruz, kontsumo elektrikoari buruz eta proiektu energetiko erraldoei buruz.

EKINTZA KLIMATIKOA

ADINA: Batxilergoa.

BEHARREZKO MATERIALA: [Ekintza Klimatikoa mahai-jokoa](#) (Alboanen 8 joko ditugu maileguan uzteko).

DESKRIBAPENA: larrialdi klimatikoari buruzko mahai-joko kooperatiboa da, eta permakulturaren zazpi eremuei buruzko galdera eta erantzunetan oinarritzen da. Besteak beste, honako kontzeptuei buruzko galderak egiten dira: biodibertsitatea, energia berdeak, ekonomia zirkularra edo desazkundera. Parte-hartzaileak 4 taldetan banatzen dira, eta erronka kolektibo bati aurre egin beharko diote galdera eta erantzunen bidez.